

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Portugaleteko Udala****Udaleku eta kanpalekuen diru-laguntzen 2017. urteko araudia onetsi**

Portugaleteko Udaltzaren 2017ko maiatzaren 25ean egindako ohiko bilkuran, besteak beste, araudi hau onesteko erabakia hartu zuen:

2017. URTEKO UDALEKU ETA KANPALEKUEN DIRU-LAGUNTZA ARAUDIA**1. artikulua. — Xedea**

1. Araudi honen xedea da 2017. urtean izaera egonkor edo ibiltaria duten udako kanpaleku eta udalekuak garatzeko diru-laguntzen emakida erregulatzea.

Aipatutako diru-laguntzen emakida hainbanaketa erregimen bereziaren arabera egingo da.

2. Izaera finko edo ibiltaria duten udako udaleku eta kanpalekuak antolatzean eta gauzatzean sortutako gastuek diru-laguntza jasoko dute honako baldintzak betetzen badituzte:

- Hezkidetza ahalbidetzea, jardueraren garapenean sexu bietako kideen parte hartzea sustatuz.
 - Euskararen erabilera sustatzea.
 - Aitortutako astialdiko hezitzaileen prestakuntzarako edozein eskola ofizialek luzatutako tituludun zuzendaria izatea, edo baliokidea den aisialdi edo animazio soziokulturaleko titulua edukitzea. Tituluduna kanpalekuak irauten duen bitartean bere funtzioetan jardungo da eta ezin izango da aldi berean bi ekitalditan aritu.
 - Bertaratutako begirale guztiak arestian aipatutako eskolek luzatutako tituludunak izan behar dira edo baliokidea den aisialdi edo animazio soziokulturaleko titulua eduki behar izango dute. Begiraleak kanpalekua irauten duen bitartean jardungo dira. Kanpaleku edo udaleku txanda bakoitzean, hamar parte-hartzaileko begirale bat egongo da gutxienez.
 - Begiraleen %90 borondatezkoak izan behar dira.
 - Begiraleen adina ezin da 16 urtetik beherakoa izan. Adin nagusiko begirale kopurua, totalaren %85ekoa izan behar da gutxienez. Sukalde, laguntzaile, intendentzia, etab. langilegoa ez da begiraletzat hartuko.
 - Kanpaleku finko edo udalekuetan parte hartzen dutenek 7 eta 25 urte bitartekoak izango dira.
 - Zazpi eguneko edo sei gauetako gutxieneko iraupena izango dute.
 - Udaleku edo kanpaleku finkeen kasuan, 15 parte-hartzaile edukiko dituzte gutxienez, minusbaliotasun taldeen kasuan ordea, gutxieneko asistentzia 6 parte-hartzailetakoa izango da. Era berean, kanpaleku ibiltarietan gutxieneko asistentzia hori 8 eta 4ra jaitsiko da hurrenez hurren.
 - Neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonia, kolonia irekien, auzolan-degien eta ibilaldietako kanpaketei buruzko Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailaren 170/1985 Dekretuak dioena bete.
3. Araudi honen aplikazio eremutik kanpo espresuki geratuko dira:
- a) Denbora-pasa bidaiak eta ikas-bidaiak.
 - b) Udako kirol campusak.
 - c) Oro har, araudi honetako 2. artikulua betetzen ez duten elkarteek bultzatutako programa guztiak.

**2. artikulua. — Subjektuak**

1. Araudi honek arautzen dituen diru-laguntzak eskuratu ahal izango dituzte haur eta gazteentzako aisiako eta astialdiko heziketa esparruan lan egiten duten eta honako baldintzak betetzen dituzten elkarteak:

- Kokapena, jarduketa-eremua eta egoitza Portugaleten izatea.
- Legalki eratuta egotea edo baldintza hori betetzen duen entitate baten mende egotea, era berean entitate horrek dagokion IFK eduki beharko du.
- Estatutuek beren-beregi jaso beharko dute haur eta gazteen alorrean garatzeko xedea dutela.
- Irabazi asmorik gabeko erakunde moduan eratuak izatea.

2. Ezin izango dira onuradunak izan azaroaren 17ko 38/2003 Orotariko Legeko 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan aurreikusten diren baldintzaren bat betetzen dituzten elkarteak.

3. artikulua. — Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Elkarte interesatuek eskabide-orriarekin batera honako dokumentazioa aurkeztu behar izango dute:

1. Proiektu-programaren dena delakoa, egingo den lekua edo lekuak, parte-hartzaile, begirale eta bestelako langileen zerrenda eta lortu nahi diren helburutasuna eta xedeak.

2. Diru-sarrera eta gastuen aurrekontu zehatza, aurkeztutako plana gauzatzeko elkarteak berak aurreikusi dituen finantziatzeko baliabideak adierazi beharko ditu (bazkide kuotak, hitzarmenak, babesleak, ondarea eta orokorrean elkarteak jarduera gauzatzeko sor ditzakeen errekurtso ekonomikoak). Diru sarreraren edo udalaz gaineko eremuko administrazioen ekarpenak direla eta (Eusko Jaurlaritza edo Aldundia), derrigorrez zehaztu beharko da azken ekitaldian jasotako laguntza. Diru-sarrera edo gastu gisara aurreko urteko soberakina edo defizita kontsignatu behar da.

3. Zuzendari eta begiraleen titulazioen kopia, era berean, janari-erabiltzaile, sorosle edo parekoena baldin badago. Azken finean, jardueraren garapenerako dituen lan eta giza baliabide guztiak.

4. Kanpaleku edo Udalekuaren kokapenaren eta sarbideen plano edo krokis zehatza. Kanpaleku ibiltarien kasuan, jarraituko den ibilbidea zehaztu beharko da gaua igaroko den lekuak aipatuz.

5. Kontratututako erantzukizun zibileko aseguruaren kopia.

6. Zinpeko aitortpena egiaztatzeko elkarteak ez dutela zigortu administratiboki edo zigor-kodean, horrela izanez gero, diru-laguntza publikoa jasotzeko aukera galduko bailuke. Halaber, bere jarduna debekatzen duen legezko agindupean ere ezin da egon otsailaren 18ko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko 4/2005eko Legeari jarraiki, sexu-diskriminazioagatik (II. eranskina).

7. Zinpeko aitortpena, hauxe aitortzen duena: Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistemaren Aldaketari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen 13. artikuluko dakarrena betetzen dutela (VII. eranskina).

8. Eskatzaileak Bizkaiko Foru Aldundiko betebeharrak fiskalak eguneratuta dituelako egiaztagiria aurkeztuko du. Zerga-betebeharrak Portugaleteko Udalarekin bakarrik duten elkarteek kasuan, eskabide-orrian horren berri emango dute. Horrela izatekotan, Udalak berak aurkeztuko du ofizioz aipatutako ziurtagiria.

9. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiria, berarekiko betebeharrak eguneratuta dituela egiaztatzeko.

10. Udalaren Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Sailak ondoko agiriak edo ziurtagiriak eskuera ez baditu edo aldaketarik egin bada, aurkeztu egin beharko dira. Bestela, zinpeko aitortpena egin behar da egiaztatzeko lehen ere aurkeztu direla (III. eranskina):



- Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroko inskripzioaren fotokopia.
- Elkarte eskatzailearen identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.
- Hartzekodun fitxa zeinetan elkarte eskatzailearen banku-datuak eta -helbideratzea eguneratuta agertuko baitira identifikazio fiskaleko txartelaren kopiarekin batera (IV.eranskina).

Udalekua edo kanpalekua amaituz gero, Udaleko Erregistro Orokorrean, Hezkuntza, Gazteria eta Kultura Sailera bideratuta, aurtengo urriaren 6a baino lehen honako agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- Diru-laguntza jaso duen kanpaldian gauzatutako jardueren memoria (helburuak eta balioespena).
- Parte-hartzaileen zerrenda (V.eranskina).
- Begiraleen eta gainontzeko langileen zerrenda.(VI.eranskina).
- Diru-laguntza jaso duen kanpaldiko entitatearen diru-sarrera eta gastuen azken balantzea.
- Gastuen zerrenda xehetua non fakturaren data eta zenbakia, hartzekodunaren IFZa, kontzeptua eta zenbatekoa agertu behar baitira. Horrekin batera, aldi horretan eginiko gastuen fakturen egiaztagirien fotokopia zenbakidunak atxikita joango dira (VIII. eranskina).
- Udaleku edo kanpaleku finkoaren kasuan, dagokion administrazioak (udalekoa edo lurraldekoa) igorrita, kanpalekua edo udalekua gauzatu eta non garatu den dioelako ziurtagiriarekin batera, parte-hartzaileen zerrenda (izena, bi abizen, jaiotze-data eta helbide osoa, udalekuak direnean) aurkeztu beharko dute.
- Kanpalekua ibiltaria denean, parte-hartzaileen zerrenda. Zerrenda horrek honako datuak jasoko ditu: izena, bi abizen, jaiotze-data eta helbidea eta gaua igaro den udalerrietako udal zigilua.
- Guraso edo tutoreei bidalitako dokumentazioaren ale bat argitaratutako iragarpen materialarekin batera.

4. artikulua. – *Datu babesa*

Deialdi honetako informazioa eta datuak Izaera Pertsonaleko Datu Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak babesten ditu.

5. artikulua. – *Epeak eta aurkezteko tokiak*

- Eskaerak egiteko eredu ofiziala erabili ahal da (1. eranskina), legezko ordezkariaren bitartez eta dokumentazio osagarriarekin batera, Udaletxeko Erregistro Orokorrean (Solar plaza z. g.), astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara, edo Herritarren Arretarako Informazio Bulegoan, (San Roke plaza z. g.) astelehenetik ostiralera, 14:30etik 20:15era eta larunbatetan, 9:00etatik 13:45era.
- Eskaerak aurkezteko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdi hau argitaratu eta biharamunetik hasita zenbatu beharreko 30 eguneko izango da.
- Diru-laguntza izapidetzeko eranskin eta agiri guztiak webguneotan daude eskuragarri: www.portugalete.org eta www.juventudportugalete.org.
- Diru-justifikazioa aurkezteko epea aurtengo urriaren 6a izango da. Izan ere, Udaletxeko Erregistro Orokorrean (Solar plaza, z.g.), astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara, edo Herritarren Arretarako Informazio Bulegoan, (San Roke plaza, z.g.) astelehenetik ostiralera, 14:30etik 20:15era eta larunbatetan, 9:00etatik 13:45era aurkeztu beharko da.
- Eskaeren aurkezpena Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 38.4 atalak aurreikusten dituen edozein lekutan egin daiteke.
- Eskaerak aipatutako epetik kanpo aurkezteak, eskaera horien gaitzespena dakar eta horiek beraiek izapidetu barik artxibatuko dira.



- Eskerak eskatutako datu barik jasotzen badira edo azaldutako agiriekin ez badatoz, interesatuei dei egingo zaie 10 eguneko epean aurkitutako akatsak zuzentzeko. Era berean, ohartaraziko zaie zuzenketa egin ezean, ulertuko dela eskaera egiteko nahiari uko egin diola.

6. artikulua. — Diru-laguntzaren zenbatekotasuna: hainbanaketa

Udaleku eta kanpalekuak finantziatzeko diru-laguntzak honako eran kuantifikatuko dira:

1. Kantitate finko baten esleipenaren bitartez, 200 euro elkarte antolatzaile bakoitzari.
2. Kantitate finko baten esleipenaren bitartez, 2 euro, gau eta udaleku edo kanpalekuko haur edo gazte parte-hartzaile bakoitzeko, zuzendaria, begiraleak eta beste mota bateko langileak barne daudelarik.
3. Justifikazioaren fakturak garbitu ondoren sortutako gastuen portzentaia hurrengo moduan kalkulatu da:
 - a) Artikuluan zehazten den aurrekontu mugari kenduko zaio, onartutako entitate eskatzaileei arestian aipatutako kontzeptuen arabera egiletsitako kantitateak.
 - b) Onartutako entitate eskatzaileen fakturen arazketa egin ondoren gastuak gehituko dira.
 - c) B ataleko emaitzaren arabera a) ataleko emaitzako kopuruak suposatzen duen ehuneko portzentaia kalkulatu da.

7. artikulua. — Izapidetzea eta ebaztea

1. Honako oinarri zehaztetan jasotzen diren laguntzak emateko organo izapidegilea Portugaleteko Udaleko Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Saileko administrazio-unitatea izango da. Ebazpena emateko organo eskuduna Udalaren Gobernu Batzordea izango da.

2. Ebazpena emateko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, eskabideak egiteko epearen amaieratik aurrera, epe hori igarota diru-laguntza eskaera gaitzetsizat joko da ebazpen espresua jaso ezean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 44.1 atalaren arabera.

Ematen den ebazpenak amaiera emango dio bide administratiboari eta horren kontra administrazioarekiko auzien errekurtoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzien epaitegian 2 hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo biharamunetik hasita. Hala ere, hautazko izaerarekin eta aurreko paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzien errekurtoa baino lehen, hilabeteko epean, ebazpena eman zuen organoaren aurrean berraztertze errekurtoa aurkeztu ahal izango da.

3. Kontzesioa, eta dagokion kasuan, honako deialdiko laguntza arautuak direla eta pertsona onuradunei egin beharreko ordainketak, izapide bidean dauden eta Portugaleteko Udalak eskaintzen dituen era bereko laguntza edo diru-laguntzen markoan hasitako edozein itzultze edo zehapen prozeduren amaierari lotuta egongo dira.

8. artikulua. — Konpromisoak eta betebeharrak

1. Onuradunak parte-hartzaileen eskabide-orrietan eta publizitatean Portugaleteko Udaleko Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Saileko lankidetzara aipatu beharko du.
2. Kanpaldia burutzen den bitartean honako dokumentuak eduki behar dituzte:
 - Kontsumorako ura edangarria delako txostena.
 - Zonaldearen ingurumen-baldintzen gaineko albaitari-txostena.
 - Buru edo zerbitzu taldea osatzen duten langileen tituluen kopia edo akreditazioa: zuzendaria, begiraleak, janari-erabiltzailea, soroslea, etab.
 - Kontratututako erantzukizun zibileko aseguruia.
 - Parte-hartzaileen izen-zerrenda.
 - Hamazortzi urtetik beherakoen guraso baimena.



3. Araudi horretako diru-laguntzen onuradun izan diren entitateek, diru-laguntzaren jakinarazpena jaso eta hilabeteko epea izango dute udalekuek edo kanpalekuek sortutako gastuetan, jasotako diru-laguntzak zer nolako eragina izan duen justifikatzeko.

9. artikulua. — Finantzaketa

Deialdi hau betetzeko xedearekin, finantzaketa 13.650 (hamahiru mila seiehun eta berrogeita hamar) euroko gehieneko aurrekontu kredituari kargatuko zaio, era berean, 07 3342 481.01 aurrekontuko partidari kargatuko zaiolarik.

Aipatutako diru-laguntzak beste entitate publiko edo pribatuetatik eratorritako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo errekursoekin bateragarriak izan ahal dira, inolaz ere gainfinantzaketa eman daitekeelarik.

Diru-laguntzen aldiberekotasuna dela eta gainfinantzaketa ematen bada, onuradunak Portugaleteko Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du, beti ere Udalak finantziatutako totalaren zenbatekoari emandakoaren proportzioan.

10. artikulua. — Diru-laguntzaren itzulera

1. Entitate onuradunek diru-laguntza kontzeptuetan jasotako kantitateak itzuli beharko dituzte honako kasuetan:

- a) Diru-laguntza jasotzea beharrezkoak diren baldintzak bete barik.
- b) Diru-laguntzaren xedea ez betetzea.
- c) Diru-laguntza jaso duen jardueraren kostua dela eta gainfinantzaketa ematea. Kasu horretan, entitateak Portugaleteko Udalari dagokion gainfinantzaketaren zati proportzionala itzuli behar izango dio.

2. Itzulketa eskatzen duen ebazpena diru-laguntza eman zuen organoak berak emango du.

3. Itzulketa espediente, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko VI. Tituluarekin bat etorriko da, era berean, interesatuari harrera tramitea emango zaio 15 laneguneko epean.

11. artikulua. — Zehatzeko araubidea

Arau-hauste eta zehapen erregimena, azaroaren 17ko 38/2003 Orotariko Legeko IV. Tituluarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/98 Legearekin bat etorriko da.

12. artikulua. — Araubide juridikoa

Araudi honek aipatzen dituen diru-laguntzak, araudiak berak aurreikusitakoaz gain, azaroaren 17ko 38/2003 Orotariko Legearekin bat etorriko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Honako araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz gain, udal iragarki-taulan eta www.portugalete.org webgunean egongo da ikusgai.

Portugaleten, 2017ko maiatzaren 30ean. — Alkatea, Mikel Torres Lorenzo



I. ERANSKINA

**UDALEKUEK ETA KANPALEKUEK DIRU-LAGUNTZA JASOTZEKO ESKABIDE-ORRIA,
PORTUGALETEKO UDALAREN HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA KIROL SAILARI ZUZENDUA**

IFK:
Entitatearen izena:
Egoitza eta telefonoa:
Udalerria eta probintzia:
Presidentearen izen-abizenak eta NAN:
Kargua:

Portugaleteko Udalari eskatzen dio diru-laguntza emateko udalekua edo kanpalekua antolatzeke, araudiak zehazten dituen ezaugarriak dituela.

Taldeak edo elkarteak bere kargu hartzen du jarduera burutzearen erantzukizun osoa. Halaber, bermatzen du jasotako kantitateak erabiliko direla kanpalekuan edo udalekuan parte hartzen dutenek ordaindu beharreko kuota gutxiago ordain dezaten dagoen heinean.

Era berean, konpromisoa hartzen du, diruz lagundutako jarduera burutzean ezer gertatuz gero, horren berri emateko eta, gasturik ez badago, diru-laguntza itzultzeko.

Azkenik, konpromisoa hartzen du Udaleku eta Kanpalekuetarako Diru-laguntzen Araudian zehaztutako epeetan eskatutako agiriak aurkezteko.

Portugaleten, ...(e)ko(a)ren ...(e)(a)n
(zigilua eta sinadura)

**Jardueraren tokia: udalekua edo kanpaleku finkoa**

Kanpalekuaren tokia:	
Herria:	Udalerria:
Hurbilen dagoen udalerria eta zenbat kilometrotara dagoen:	
Abisuak emateko telefonoak:	
Zein egunetan irteten den:	Zein egunetan itzuli den:

Jardueraren tokia: tokiz tokiko kanpalekua

Erantsi ibilbide zehatza argi adierazita non egingo duten lo.

Ardunadunaren zerrenda (NANaren fotokopia eta titulua)

Zuzendariaren izen-abizenak:		
Adina:	NAN:	Tituluak:
Helbidea:		
Telefonoa:		

Begiraleak (NANaren fotokopia eta titulua)

Izena	Abizenak	Adina	Tituluak

Beste arduradun batzuk (NANaren fotokopia eta titulua)

Izena	Abizenak	Adina	Tituluak

Aurreikusten den parte-hartzaile kopurua

Mutil kopurua:	Neska kopurua:	Guztira:
Gutxienezko adina:	Gehienezko adina:	



II. ERANSKINA
ZINPEKO AITORPENA

Aitorlea:

NAN:

Elkartea:

Elkartean duen kargua:

Elkartearen IFK:

Nik, aitorleak, zin egiten dut elkarte hau ez dutela zigortu administratiboki edo zigor-kodean, otsailaren 18ko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko 4/2005eko Legeari jarraiki, sexu-diskriminazioagatik edo Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren diru-laguntzetarako beste deialdi batzuetan parte hartzeagatik.

Portugaleten, ...(e)ko(a)ren ...(e)(a)n



III. ERANSKINA
ZINPEKO EDO ARDURAPEKO AITORPENA

Elkarte eskatzailea

Izena	IFZ
Eskabidea sinatzen duenaren izen eta abizenak	NAN

Azalpena

Goian aipaturiko elkarte eskatzailearen ordezkaria naizen aldetik, zin egiten dut agiriok aurkeztu direla, ez dela aldaketarik egin eta indarrean darraitela (marka itzazu agiriak):

- Elkarte eskatzailea sortu zuteneko estatutuak edo eskritura.
- Elkarte eskatzailearen IFZren fotokopia.
- Eusko Jaurlearitzako Elkartearen Erregistroko inskripzioaren fotokopia.
- Hartzekodunaren fitxa (III. eranskina).

Portugaleten, ...(e)ko(a)ren ...(e)(a)n



IV. ERANSKINA
DATUEN ALTA EDO ALDAKETA

Pertsona edo entitate interesatuaren ezagupenerako datuak

Form fields for personal data: NAN/IFK, Abizenak eta Izena/Sozietaren izena

Banku datuak

Form fields for bank data: Bankua, Sukurtsala, KD, K/Korrontea, Kontu korrontearen jabea

Atzerriko diru-kontuetarako soilik / Bankuak bete behar

Form fields for foreign currency accounts: IBAN, Interesatuaren adostasuna, Bankuaren adostasuna

Portugaleten, ...(e)ko(a)ren ...(e)(a)n

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa bete nahian jakinaratzen dizugu zeure datuak «Terceros Contabilidad» izeneko fitxategian sartu eta erabiliko ditugula.



VI. ERANSKINA

Arduradunaren zerrenda (NANaren fotokopia eta titulua)

Zuzendariaren izenak eta abizenak:		
Adina:	NAN:	Tituluak:
Helbidea:		
Telefonia:		

Begiraleak (NANaren fotokopia eta tituluak)

Izena	Abizenak	Adina	Tituluak

Beste kide batzuk (NANaren fotokopia)

Izena	Abizenak	Adina	Kargua



VII. ERANSKINA
ZINPEKO AITORPENA

Elkarteko presidentea:

NAN:.....

Elkartea:.....

Elkartearen IFK:

Nik, elkarteko presidentea naizen aldetik, zin egiten dut hala elkarteko begirale guztiek nola elkarteko beste motatako langileek betetzen dutela Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistemaren Aldaketari buruzko 2015eko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen 13. artikulua dakarrena.

Portugaleten, ...(e)ko(a)ren ...(e)(a)n

**ESKAERA-ORRIARI ERANSTeko AGIRIAK**

Entitate interesadunek eskaera-orriari agiriok erantsi behar dizkiete: Eskaera-orria inprimaki ofiziala aurkeztuta. (1. eranskina).

- Programa-proiektua, non egingo den, zenbat parte-hartzaile aurreikusten den, begiraleen eta beste kide batzuen zerranda eta helburuak zein diren zehaztuz.
- Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu zehaztua. Aurkeztutako programa burutzeko entitateak aurreikusten dituen finantzaketa-bitartekoak: bazkideen kuotak, hitzarmenak, babesleak, ondarea eta orokorrean, jarduera burutze aldera entitateak behar dituen bitarteko ekonomiko guztiak. Diru sarrerei dagokienez edo udalaz gaineko eremuetan (Eusko Jaurlaritza edo Diputazioa) azken ekitaldian jasotako diru-laguntza aitortu behar izango da. Diru-sarrera edo gastu gisara aurreko urteko soberakina edo defizita kontsignatu behar da.
- Zuzendariaren tituluen fotokopia eta elikagaien manipulazialearena, soroslearena edo antzekoena. Laburbilduz, jarduerak egiteko giza-bitarteko eta langile ororenak.
- Planoa edo krokisa, kanpaleku edo udalekuetako kokapenaduna. Udalekuetara nola ailegatu ere zehaztu beharra dago.
- Ibilbide zehaztua (tokiz tokiko kanpalekuak).
- Erantzukizun zibilaren aseguru kontratatuaren fotokopia.
- Elkarteari isunik jarri ez zaiolako zinpeko aitortpena (2.eranskina)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Sailarekiko betebeharrak egunean dituelako ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrearekiko betebeharrak egunean dituelako ziurtagiria.
- Inskripzio-orria, gurasoei bidalitako agiriak eta publizitaterako materiala.
- Zinpeko aitortpena, hauxe aitortzen duena: Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistemaren Aldaketari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen 13. artikulua dardarrena betetzen dutela (VII. eranskina).
- Behar izatekotan, zinpeko aitortpena (III. eranskina).
- Behar izatekotan Eusko Jaurlaritzako elkartearen erregistroko inskripzioaren fotokopia.
- Behar izatekotan, elkartearen identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.
- Behar izatekotan, hartzekodunaren fitxa zeinetan entitate eskatzailearen datuak eta bankuko helbideratze-datuak ere agertzen baitira (IV. eranskina).

**UDALEKUA EDO KANPALEKUA EGIN ONDOREN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

Aurkezteko tokiak: Udaletxeko Erregistro Orokorrean edo Herritarren Arretarako Informazio Bulegoa. Nori zuzendua: Hezkuntza eta Gazteria Saila Epea: aurtengo urriaren 6ra arte Agiriok aurkeztu behar dira:

- Diruz lagundutako kanpalekuan egindako jardueren oroit-idazkia (helburuak eta ebaluazioa).
- Parte hartu dutenen zerrenda (V. eranskina).
- Begiraleen eta beste kide batzuen zerrenda (VI.eranskina).
- Dagokion organu eskudunak onetsitako entitatearen diru-sarreraren eta gastuen amaierako balantzea, diruz lagundutako kanpalekuari dagokiolarik.
- Gastuen zerrenda xehetua non fakturaren data eta zenbakia, hartzekoduna eta bere IFZ, kontzeptua eta zenbatekoa agertu beharko baitira, faktura zenbakidunen fotokopia, diruz lagundutako kanpaleku zein udalekuari dagozkionak soilik izango dira. Izan ere, ezin izango da etxeko alokairua, lursailekoa, eta abarrekoa gastutzat jo baldin eta entitatearena edo elkartearena bada, elkarte horretako entitate batena bada edo alokairuko kontratua ez badago (VIII. Eranskina).
- Udaleku edo kanpaleku finkoa antolatuz gero, kokatuta dagoen udal zein barrutiko administrazioak sinatutako ziurtagiria. Hor parte-hartzaileen kopurua ere zehaztu beharra dago.
- Tokiz tokiko kanpalekua bada, parte-hartzaileen zerrenda aukeztu behar da eta ondoko datuak izan behar ditu: izena, bi abizenak, jaiotza-data eta helbide osoa. Hori guztia gaua igaro duten tokietako udalek sinatu behar dute.
- Gurasoei edo tutoreei bidalitako agirien alea, editatutako publizitate-materialarekin batera.